

ENTZUNGAIA: A2

Txan-ta-ta-txan eta magia.



1. Entzun Amaia eta Josuren arteko elkarrizketaren lehen zatia eta ordenatu zer gertatu den.

- ☐ Amaiak ezetz esango dio Josuri, ez duela magoa ikusi nahi, nekatuta dagoelako.
- ☐ Kaleko jendea mago bati begira dagoela ikusiko dute.
- ☐ Jendea dagoen lekura hurbildu dira bi lagunak.
- ☐ Josuk magoa ikustera joateko proposatuko dio Amaiari.
- ☐ Bidean doazela, jende asko ikusi dute elkartuta kalean Josuk eta Amaiak.
- ☐ Amaia eta Josu etxe aldera doaz, berriketan, fakultatetik atera ondoren.



2. Magoak egin nahi duen trikimailua hau da:

- A) Edalontzietan pilotak sartzen saiatuko da.
- B) Pilota bat edalontzi barrutik desagertuko da.
- C) Hiru pilota desagertuko dira.



3. Nola atera zaio trikimailua magoari?

- A) Gaizki, baina ez da inor konturatu.
- B) Primeran, eta jendeak txalotu egin du.
- C) Gaizki, pilota erori egin zaio-eta.

4. Zer esan du Amaiak magoari buruz?

- A) Benetako magia egin duela.
- B) Gustura botako diola tomate bat aurpegira.
- C) Oso txarra dela.

5. Eta Josuk?

- A) Magoa laster desagertuko dela.
- B) Txapela pasatzen badu, ez diola dirurik botako.
- C) Berak eta Amaiak ere magia egingo dutela.

